

Chillida eta Hernaniren arteko harremana ikusgai Biterin

Makina batek galdetu dio bere buruari behin baino gehiagotan ea Eduardo Chillida eskultore famatua hernaniarra zen, eta hala ez bazen, zein harreman zuen eskultoreak Hernanirekin.

Galdera horri erantzuteko hain zuzen, erakusketa prestatu du Chillida Leku museoak Hernaniko Biteri kultur etxean jartzeko. Bertan, Chillida eskultoreak Hernani herriarekin izan zuen harremana azaltzen da.

Erakusketa iraila eta urria osoan egongo da jarria kultur etxean, goizeko 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta larunbat goizetan 09:00etatik 13:00etara. Chillida. Hernani 1951-1957 Erakusketaren izen osoa. Chillida. Hernani 1951-1957 da, hain zuzen, garai horretan harreman estua izan zuelako eskultoreak Hernanirekin, eta garai hark hain zuzen, eragin haundia izan zuelako eskultorearen bilakaeran.

Parisetik bueltan

Erakusketan agerian utzi nahi da garai hark eta zehazki Hernani herriak izan zuten eragina eskultorearengan. Urte horietan Eduardo Chillidak adierazpen ibilbide berria aurkitu baitzuen. Artista Parisen urte batzuk eman ondoren etorri zen Hernanira. Frantziako hiriburutik urrundu zen kanpo eraginak alde batera utzi nahian, eta bere herrian sormen ibilbide pertsonala aurkituko zuelakoan. Euskal Herrian bere sustraiak aurkitu zituen: burdina, hizkuntza eta tradizioa. Hernaniko burdinola batean Ilarik izeneko burdinazko lehen eskultura, euskal hilarrian oinarritua, egin zuen.

43 argazki

Erakusketan 43 argazki daude Chillida eta bere lanaren ingurukoak: artelanak, Chillida bera lanean, irudiak, Zabalaga baserriko lanak eta abar.

Zabaldu!